



5. DINAMIKA. LAN MERKATUA: LAN IRAGARKIAK

HELBURUA	Enpresek zer eskatzen duten jakitea
IRAUPENA	50' (5' materiala banatzea eta ariketa azaltzea, 5' talde txikietan zatitzea, 25' taldean lan egitea eta 15' bateratze lana)
MATERIALAK	Idazteko materiala Lan iragarkiak (eranskinean adibide batzuk agertzen dira)
GARAPENA	Taldea 4 edo 5 pertsonako talde txikiagoetan zaitu eta inguruko lan iragarkiak banatuko dira. Eranskinean Lanbidetik (www.lanbide.net) lortutako adibide batzuk jaso dira. Ikasleek iragarki bakoitzaren ezaugarriak aztertu behar dituzte, lanpostuaren definizioari, eskatutako prestakuntza eta lan esperientziari, adinari, soldadari, gizarte-etekinei erreparatuz, sexu bati lehentasuna ematen zaion, etab. Ikasleei taula talde txikian betetzeko beharrezko denbora eman ondoren, egindako lana gainerako kideekin bateratu, eskaintza horretan zer eskatzen den aztertu eta zer iruditzen zaien adierazi behar dute.
OHARRAK	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Parte-hartzea ✓ Lanbide errealitatea ezagutzea ✓ Genero estereotipoak



Lanpostua:	Ekipo elektrikoen mantentze-lanetako teknikaria
Eskainitako lanpostuaren izena:	MANTENTZE ELEKTRIKORAKO TEKNIKARIA
Eskainitako lanpostuak:	1
Lanpostuaren kokapena:	████████ GIPUZKOA
Esperientzia:	3 urte

Oharrak

3 urtetik gorako esperientzia motorreko osagaiak fabrikatzen dituen tailerrean makinen mantentze elektrikorako lanpostuan. Ezinbestekoa: LHII, CNC kontrolak menderatzea (fagor, fanuc, siemens). PLCko eta motorren doikuntzak-erregulazioak. Eskema elektrikoen interpretazioa eta pneumatikako eta hidraulikako ezagutzak. Baloratzeko modukoa: Ingeleseko maila handia. Aldi baterako kontratua, kontratu finko bihurtzeko aukerarekin. Txandakako lanaldia (4. eta 5. txanda).

Lanpostua:	Unisex ile-apaintzailea
Eskainitako lanpostuaren izena:	ILE-APAINZAILEA
Eskainitako lanpostuak:	1
Lanpostuaren kokapena:	████████ GIPUZKOA
Esperientzia:	Urte 1

Prestakuntza arautua:

Ile-apainketako teknikaria

Eskatutako hizkuntzak:

	Irakurmena	Idazmena	Hitz egitea	Itzulpena	Interpretazioa	Irakaskuntza	Ama-hizkuntza
EUSKARA	GOI MAILA	GOI MAILA	GOI MAILA			Ez	Ez

Oharrak:

Ile-apaintzailea behar da ile-apaindegi mistorako. Esperientzia izan behar du lan teknikoetan eta eskuko ile-lehorgailuan. Ezinbestekoa: Euskara menderatzea eta esperientzia deskribatutako lanetan. Hemen bizitzea: ██████████. ESKAINTZEN DA: Urtebeteko hasierako kontratua lanaldi osoan frogaldia gainditu ondoren. Soldata adosteko langilearen balioaren arabera. Berehala hasteko.

Lanpostua:	Etxeko langilea
Eskainitako lanpostuaren izena:	ETXEKO LANGILEA
Eskainitako lanpostuak:	1
Lanpostuaren kokapena:	████████ GIPUZKOA

Oharrak:

Garbiketa eginkizunak egitea, esperientzia eginkizun horiek egiten. Hemen bizitzea baloratzeko da: ██████████. Obrako kontratua, urtebeteko iraupeneko, lanaldi osoan.